

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus

KONTROL MOZIOA

COVID-19ak Emakumeen Etxean izandako eraginari buruzkoa

EH BILDU udal taldeko zinegotzi Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, COVID-19ak Emakumeen Etxeko jardueretan izango duen eraginari buruz egin beharreko txostenaz. Mozioa urriaren 19an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Ekaineko osoko bilkuran, puntu hau onetsi zen:

“Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio txosten bat egin dezala muga horrek Emakumeen Etxek jardueretan izan dezakeen eraginaz, eta muga horrek zenbat emakumeri eragin diezaiekeen azaltzeko, eta informazio hori Berdintasun Kontseiluari eta Emakumeen Etxeko Elkarteari helarazteko”.

Orain arte ez dugu izan txosten horren berririk, Berdintasun Bulegoak ez baitu horri buruzko informaziorik bidali. Eta gobernu honi egin behar zaion galdera hau da: nola jakin norantz jo, abiapuntua zein den ez badakigu?

Izan ere, Emakumeen Etxea bere flotazio marran ari da kolpea nozitzen: emakumeen bertaratzea. Gaur egun, leku faltak –hainbat bidetatik behin eta berriz salatua– eta birusaren hedapena eta kutsadura saihesteko hartu diren neurri soziosanitarioek modu kezkarria gutxitu dute Okendo kaleko egoitzaren edukiera ahalmena.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus

Egoera horri elementu ukiezin bat gehitu behar zaio: kutsatzeko beldurra. Faktore hori hainbat kolektibok nabarmendu dute.

Hori dela eta, arrisku handia dago pixkanaka gizonen eta emakumeen berdintasunaren aldeko borroka eremu hori ahultzekoa. Eta hori ezin da onartu.

Horri buruz interpelatuta, zinegotzi ordezkariak erantzun zuen egingo dutela txostena, baina geroago; dena dela, ez zuen eman gutxi gorabeherako datarik. Lau hilabete igaro dira Udaltzarak Udal Gobernuari eskaera hori egin zionetik, eta zortzi hilabete pandemia hasi zenetik; nahikoa denbora hasierako diagnostiko bat egiteko, egungo testuinguruan irtenbide onenak bilatzeko abiapuntu gisa balio dezan.

Horregatik guztiagatik, hau da nire KONTROL MOZIOA:

- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aurkez diezaie, gehienez ere hilabeteko epean, txosten bat Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektorialari eta Emakumeen Etxea elkarteari, xeheki jasoko duena zenbat jarduera egiten dituen azken erakunde horrek eta egungo pandemia egoeran hartutako neurriek jarduera horietan parte hartzen duten emakumeetatik zenbati eragin diezaieketen.

Donostia, 2020ko urriaren 23a

Reyes Carrere Zabala

EH Bildu udal taldeko zinegotzia